

2025eko OTSAILA

BERMEON ZER?

OTSAILAK 2

**Demiku
auzoko jaiak**

OTSAILAK 4

Santa Ageda bezpera

OTSAILAK 21

"Miñan" Artedrama

**25/26 IKASTURTERAKO
AURREMATRIKULAZIO
KANPAINA ZABALIK
BIGARREN HEZKUNTZAN
OTSAILAREN 3TIK 14RA**



BERMEO
BHI Bermeoko
institutua



**BIŞITA PERTSONALIZATUAK GURE
METODOLOGIA BERRITZAILEA EZAGUTZEKO.
ZURE ZAİN GAUDE!**

TLF: 944 28 80 66

EMAIL: ZUZENDARITZA@BERMEOBHI.EUS

01 **Zapatua**
Areneko
kiroldegian

KIROLA
ESKUBALOIA

Infantil mutilak: Urdaibai Talape – Kadagua
Infantil neskek: Urdaibai Demiku – Muskiz
Infantil neskek: Urdaibai Kurtzio – Kukullaga Etxebarri

FUTBITO

Biara Bermio A – Hegalariak

Hermanuetako
Kapillan
21:00etan

MUSIKA
KONTZERTUAK

Addar (Bermeo) + Txerri Ugerrak (Erromo) +
The Riff Truckers (Gernika-Lumo).

Sarrera: 8€

Antolatzailea: **Nuntxaku kultur elkarte**



02 **Domeka**

JAIAK
DEMIKU AUZOKO
KANDELARIA JAIAK

09:00: Demikutik Katillotxura urteera, euria baldin bada bertan behera.

11:00: txupinazoa

11:30: umeentzako jolasak eta tailerrak

12:00: Josepa Kale Kale taldearen ekitaldia

13:00: meza (San Blas zintak eta kandelak salgai egongo dira eleizpean)

13:30: luntxa eta Josepa Kale Kale taldearen ekitaldiaren jarraipena

13:45: ahiezko tostada txapelketarako izena emotea

Ondoren: tostada txapelketaren sari banaketa.

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala** eta **Demiku auzoko bizilagunak**



04 Martitzena
Irakaskintzatik
12:00etan

JAIA

SANTA AGEDA BEZPERA
Erroxape Abesbatza eta
Arrekatxutxa taldeen kalejira.

Sancti Spiritus
Udal Zaharren
Egoitzatik
18:00etan

Eleizalde Ikastolaren kalejira
Antolatzailea: **Eleizalde Ikastola**



06 Eguena
OLHUI
09:00-12:00

TAILERRA

BIZIRAUPENERAKO
SUKALDARITZA


Tailer honetan, 5 € baino gutxiagoko aurrekontuagaz, errezeta osasungarri eta zapoetsuak egiten ikasiko dogu. Bertoko eta mundu zabaleko usaindun errezetak egingo doguz.

Norentzat? 18 urtetik gorako emakumeentzat.

Trebatzaileak: Bermeoko OLHUIko ikasleak.

Izena emon behar da: berdintasuna@bermeo.eus
688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



07 Barikua
Nestor
Basterretxea
aretoan
17:00etatik
aurrera

**ERAKUSKETA ETA LIBURU
AURKEZPENA**

“BI MILITANTE
POLITIKOREN SORMENA”

17:00-21:00. Elias Fernandez Castañares euskal preso ohiak kartzelan egindako eskulanean erakusketa.

19:00. Fernando Garcia Jodra euskal presoaren “La Furia del Cobarde” liburuaren aurkezpena.

Antolatzailea: **Zantzue kultur elkarte**



07 Barikua
Erroxaperen
egoitzan
19:00etan

08 Zapatua
Areneko
kiroldegian



13 Eguena
San Frantzisko
Herri Ikastetxean
18:30ean

14 Barikua
Nestor
Basterretxea
aretoan
18:00etan



FILM EMONALDIA

SEIS TRIPLE OCHO

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**



KIROLA

ESKUBALOIA

Beteranoak : Urdaibai Beteranoak – Basauriko beteranoak
Infantil neskek: Urdaibai Sollube – Kukullaga Etxebarri
Infantil neskek: Urdaibai Gaztelugatxe – Zuazo zuria

TAILERRA

“Sare Sozialak eta nerabeak, aro digitaleko familiak”

Izena emon behar da.

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala**



ANTZERKIA

“ELARA, BIDAIA BAT IZARRETARA” MarMar Teatro

Sinopsia: Elarak goizegi ezagutuko dau galera berbaren esanahia. Bere gertuko bat izarren hauts bihurtuko da. Horregaitik, Elarak erabagi dau haren bila joatea galaxiarik galaxia eta planetarik planeta. Bidaia espazial bezain espeziala egingo dau bizitzaren zentzua ulertu gurean, horretarako doluaren faseak (eta desfaseak) zeharkatu behar badauz be. Aktoreak: Garoa Bugallo, Maitane Serrano, Aritza Rodriguez. Sarrera: 5 €. Salgai otsailaren 3tik aurrera, Gizarte eta Kultura Etxean eta bermeo.eus webgunean.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza



14 Barikua

URTEERA

'Sorolla' erakusketa
ikusteko urteera
Bilbora

Erakusketa eta gero, bazkaria.
Informazino gehiago: Erroxape
Emakumeen Elkartearen lokalean.
Izena emoteko azken eguna: otsailak 11.

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen
Elkartea**



15 Zapatua
Areneko
kiroldegian



KIROLA

ESKUBALOIA

Infantil neskek: Urdaibai Demiku – Uribe Kosta
Infantil neskek: Urdaibai Kurtzio – Etxebarri
Infantil neskek: Urdaibai Txatxarramendi – Kukullaga

FUTBITOIA

Biara Bermio A – Gernikako lagunak B

Zapatua
Arrantzaleen
Museoan
11:30-13:00

UMEENTZAKO TAILERRA

ARATUSTEAK

5 eta 12 urte bitarteko umeei eskainitako
tailer honetan, aratusteak aurreratuko
doguz - mozorro parebakoak sortuz
(euskeraz). Prezioa: 1 €

Erreserba beharrezkoa da: 94-688 11 71
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**



16 Domeka
Santa Eufemia
eleizpean
11:30-13:30

DENDA SOLIDARIOA

KIDENDA

Antolatzailea: **Kidenda**



24/25 SAIO SOLTEAK

BIKING MULTIGYM KARDIOBOX TRX POWER PUMP FITNESS FUNZIONALA

GELA	astelehena			asteartea			asteazkena			osteguna			ostirala			la	ig
	GOKO GELA	AEROBIK BELA	BIRING BELA	GOKO GELA	AEROBIK BELA	BIRING BELA	GOKO GELA	AEROBIK BELA	BIRING BELA	GOKO GELA	AEROBIK BELA	BIRING BELA	GOKO GELA	AEROBIK BELA	BIRING BELA	BIRING BELA	BIRING BELA
08:10			Biking						Biking			Biking					
08:40								Multigym					Multigym				
09:05			Biking													Biking	Biking
09:10																Biking	Biking
10:10																	
14:30						Biking			Biking			Biking				Biking	Biking
15:30	FF		Biking			Biking		FF			Biking		FF			Biking	Biking
16:00			Biking						Biking							Biking	Biking
17:15				TRX								TRX					
17:30		KARDIOBOX							KARDIOBOX								
18:00						Biking						Biking					
18:30		Multigym							Multigym								
19:15				FF							FF						
19:30	FF		Biking m.		Power P.		FF		Biking m.		Power P.						
20:00						Biking						Biking					

Jarduera eta ordutegi hauek askaritzen eta urteko sasoiaren arabera aldatu ahal izango dira.

Bosti zaitez!
mójate_be active



Lasaitze gunaren Ordutegia / Horario Zona relax

URTEAN ZEHAR

GOIZEZ ARRATSALDEZ

10:00 - 15:00

15:00 - 21:30

ASTELEHENA




ASTEARTEA



ASTEAZKENA



OSTEGUNA



OSTIRALA



LARUNBATA



IGANDEA



UZTAILA eta ABUZTUA

GOIZEZ ARRATSALDEZ

10:00 - 14:00

17:00 - 21:30



Herriaren erdian egotea.
Berdegunez beteriko patio
handietan jolastea. Amara Berri
Sistema bizieta. Guraso
goiztiarrentzako zerbitzu
aproposa. Eskolaz kanpoko
jarduera zoragarriak disfrutatzea.
Danon eskola. Zure eskola.
Herriko eskola. San Frantzisko LHI.

MATRIKULATU: OTSAILAREN 3TIK 14RA



**ERDU EZETUTEN
HARTU HITZORDUA
94 688 04 77**

17 Astelehena
Gizarte eta
Kultura
Etxean
17:30-19:30



TAILERRA

ZIKLOTASUNA EZAGUTZEN

Tailer honen bidez, emakumeen ziklotasuna zelakoa dan eta bere funtzionamendua zein dan landuko da. Tailerraren hasieran eta amaieran, amek eta alabek dinamika bateratua egingo dabe. Tartean, espazio desbardineta banatuko dira. Alabek adin bereko beste ume batzuek ziklikoa izatea eta honen berezitasunak zeintzuk diran ikasiko dabe. Eta, beste alde batetik, amek zikloa ezagutu, baliabideak landu eta honen aurrean daukiezan bildurrak, galderak... partekatze leku segurua aurkituko dabe.

Norentzat? LH5. mailako neska eta euren amentzat
Trebataileak: Ana Valles Renteria eta Esti Bilbao Bilbao
Izena emon behar da: berdintasuna@bermeo.eus/ 688 638 449.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

20 Eguena
Nestor
Basterretxea
aretoan
18:30ean

FILM EMONALDIA

"AMOREBIETAKO EMAKUMEEN KARTZELA" dokumentala

Antolatzailea: **Sollube 707 mendizale taldea**



Gizarte eta
Kultura
Etxean
19:30ean

IRAKURLEEN TXOKOA

"KRISTO IRAKIARRA"

Hassan Blasim-en liburua, eta Ana Isabel Moralesek itzulia.
Sinopsia: Noiz edo noiz esana dau Hassan Blasimek irakiar bakotzak bildurrezko bost istorio daukazala gitxienez kontatzeko. Beharbada, horregaitik dago liburu hau kontalariz betea, modu konputsiboan euren istorioak azaltzen deusiezanak tabernako ezezagunari, psikiatrari, treneko ausazko bidaideari, irratiko mikrofonoari, datu bila dabilen ikertzaileari, adiskide eta senide presente edo ausenteari.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



21 Barikua
Bermeoko Kafe
Antzokian
20:00etan

ANTZERKIA
"MIÑAN" ARTEDRAMA



Sinopsia: Ibrahim kamioi batean ebilen aprendiz Ginean, egun batean amak deitu eban arte: anaia txikia falta zan etxean. Eta haren bila abiatu zan. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileakaz topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea. Mediterraneo zaharkatzen dabenak deshumanizatzea ezinbestekoa da euren heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzen ganeko ardurabakokeria zabaltzeko. Baina bizitza horreetako baxotxa bakarra da eta, beraz, unibersala. Eta kontatzeak hori azpimarratzen dau. Ibrahim Balderen bizitzaren kronika da antzezlan hau, harek ahoz kontatua, Amets Arzallusek idatziz jasoa, eta Artedramak antzerkira egokitua.

Egileak: Ibrahim Balde eta Amets Arzallus
Zuzendaria: Ander Lipus

Aktoreak: Ander Lipus, Sambou Diaby, Eihara Irazusta eta Mikel Kaye.
Sarrera: 10 € (deskontudunak 7,50 € leihatilan bakarrik). Salgai otsailaren 3tik aurrera Gizarte eta Kultura Etxean eta bermeo.eus web gunean.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**
Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza

22 Zapatua
Areneko
kiroldegian

KIROLA
ESKUBALOIA

Infantil neskek: Urdaibai Demiku – Uribe Kosta
Infantil neskek: Urdaibai Sollube – Muskiz
Infantil neskek: Urdaibai Sollube – Urdaibai Txatxarramendi



23 Domeka
Taraskan
09:30ean

IRTEERA
INGURUETATIK OINEZ

Bermeoko Berbalagunak inguruak ezagutzera joango dira, oinez, ariketa egin bitartean euskeraz praktikatzeko; ibilbide zirkularra izango da, zailtasun gutxiarekin. Dohainik.

Izena emoteko: 607 609 580/ emanizena.praktikatu.eus
Izena emoteko azken eguna: otsailak 20

Antolatzailea: **Berbalagun**



24 Astelehena
25 Martitzena
26 Eguaztena
Musika
eskolan
19:00etan

MUSIKA

"MUSIKAREN OLATUAK" KAMARA KONTZERTUAK

Musika eskolako taldeen kontzertua.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



26 Eguaztena
Gizarte eta
Kultura Etxean
19:30ean

IRAKURLEEN TXOKO FEMINISTA

"GELA BAT NORBERARENA", Virginia Woolfen liburua, eta Maria Colera Intxaustik itzulia.

Sinopsia: Emakumeei eta fikzioari buruz jarduteko eskaera bati jarraiki idatzi eban Virginia Woolfek Gela bat norberarena saiakera. Emakumeen genero-rolak aztertu ebazan bertan, idazleak, sortzaileak eta fikzinoko pertsonaiak diran aldetik. Emakumeen idazkuntza tradizio patriarkalaren baitan hizpide hartzen duan saiakera hori 1920an argitaratu zuen eta manifestu feminista inspiratzailea bihurtu zuen berehala. "Fikzinoa idatziko dau, emakumeak dirua behar dau eta gela bat beretzat"

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



27 Eguena
Gizarte eta
Kultura Etxean
17:30-20:30

TAILERRA

HETEROSEXUALITATEA IRAULI

Heterosexualitatea gure jendartea eta, ondorioz, gure pentsamendua konfiguratu dauan erregimen politiko bat dalako kontzientzia hartzetik, bakotxaren desiran eta harreman erotikotik daukan eraginaren inguruan hausnartuz, existitzen diran errealitate alternatiboak ezagutzea.

Norentzat? LGTBI + pertsonentzat

Trebatzailea: Hiru Larroxa

Izena emon behar da:

berdintasuna@bermeo.eus/ 688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



28 Barikua
Goiko Plazan
20:00etan



MUSIKA

KANTA KANTA LORUE

Goiko Plazan batuko gara, umore eta gogotsu, aratusteei hasiera emoteko. Deitu lagunei eta erdu geugaz, mozorroen osagarri bat (antifaza; sudur-gorri bat; ...) edo traje osoa soinean jarrita; KANTU - JIRAN aratusteei ongi etorria emotera, aratusteetako barikua kantuz pasatzera. Ez zara damutuko! Gogoratu: Kanta Kanta Lorue zure neurrikoa da. Bardin da: zure adina, kantatzeko era edo ahots kalitatea. Gogoia eta umorea dira ezinbesteko osagai bakarrak, herritar kantari artean, bariku desbardin batez gozatzeko. Kantatzen dauan herria, bizirik dagoan herria da! Gora Kanta Kanta Lorue karnabalerue!!!

*Antolatzailea: **Kanta kanta lorue***

GIZ

BERMESEX SEXU-AHOLKULARITZA ZERBITZUA:

sexualidadeari buruzko edozein zalantza edo zoezer partekatze gogoia badaukazu, deitu, idatzi edo hurbildu. Doako zerbitzua eta isilpekoa.

Datak: otsailak 14 eta 28 (barikuak)

- Ordutegia: 16:30-18:00
- Non: Kultur Etxean, 2.1 batzar gelan
- 644898661/bermesex@bermeo.eus
- Nori zuzendua: gazteak, gurasoak, hezitzaileak, irakasleak, begiraleak.

ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA:

familientzako informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua da.

Doakoa eta isilpekoa

- Noiz: astero: martitzen, eguazten eta eguenetan
- Ordutegia: 08:30-14:30
- Non: Kultur Etxean, 1. solairuan, gazte ekimenak gelan
- 675025018/bermeoprebentzioa@etorkintza.org

ERAKUSKETAK

Berhaz Bulegoan

Berhaz Bulegoko XLII. ERAKUSKETEA

OANA PERJERU "ABRIENDO CAMINOS. Paisajes desde el corazón"

Hartu-emonetarako: 678 279 679 /oanaperjeru77@gmail.com

Bulegoko ordutegia:

Astelehena-eguztzena-barikua: 08:00-15:00

Martitzena-eguztzena: 08:00-14:00 eta 16:00-18:00



Arrantzaleen Museoa

Nuevo Anchustegi "Gure Señoriti"

Otsailaren 8tik aurrera

Museoko ordutegia:

Martitzenetik zapatara: 10:00 – 16:00

Domeka eta jaiegunetan: 10:30 – 14:30

Astelehenetan itxita.

Erakusketak Ondarroako Nuevo Anchustegi ontziaren istorioa kontatzen deusku. Euskal Herriko baxurako arrantza tradizionalaren garapenaren ordezkari, ontzia ondare material garrantzitsu lez aurkezteaz ganera, erakusketak memoria immaterialean be sakontzen dau, eta Nuevo Anchustegi-n bizi eta lan egin eben personen lekukotasun eta esperientzietan murgiltzera gonbidatzen gaitu.

Tel. 946881171/ helbide elektronikoa: arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Antolatzailea: Arrantzaleen Museoa



Kultur Zerbitzuak

UME TXIKIEN TXOKOA

Gizarte eta Kultura Etxean
Astelehenetik eguenera,
16:30etik 19:30era
Umeak arduradun bategaz
egon behar dira derrigor.

BEKOPORTALE

0-5 urte bitarteko umeentzat, Kardenal
Mendoza aldatsean.
Martitzenetik barikura, 17:00etatik 19:00etara,
eta zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara

LUDOTEKA

6-11 urte bitarteko ume eta
gaztetxoentzat.
Barikuak eta zapatuak
17:00-20:00
Gizarte eta Kultura Etxean.

OTSAILA
6-11 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat
Barikua eta Zapatua 17:00-20:00

	01/02	BEZPERAKO JOKOEN JARRAITU
	07/02	FANZINE
	08/02	AKUARELEKIN MARRAZKETA
	14/02	ARRARIK ARRA JOKOA
	15/02	ESKULANA : KAKTUSA
	21/02	PARTXIS TXAPELKETA
	22/02	PARTXIS TXAPELKETA FINALA
	28/02	ARATUSTEAK MOZORROAK

BERMEOKO LUDOTEKA



OTSAILEKO PROGRAMA

BEKO PORTALE



ASTELEHENA

- 3 PSIKOMOTRIZITATEA
- 10 PSIKOMOTRIZITATEA
- 17 PSIKOMOTRIZITATEA
- 24 PSIKOMOTRIZITATEA

MARTITZENA

- 4 JOLAS LIBREA
- 11 JOLAS LIBREA
- 18 JOLAS LIBREA
- 25 JOLAS LIBREA

EGUAZTENA

- 5 PSIKOMOTRIZITATEA
- 12 PSIKOMOTRIZITATEA
- 19 PSIKOMOTRIZITATEA
- 26 PSIKOMOTRIZITATEA

EGUENA

- 6 SLIME
- 13 PUXIKA ANITZAK
- 20 KRISTAL ITXURAK
- 27 IPUINAREN ORDUA

BARIKUA

- 7 ESKUEKIN MARGOZTU
- 14 BIHOTZA
- 21 MUNDUA
- 28 UNIBERTSOA

ASTELEHENETIK BARIKURA 17:00-19:00

Hurtado de Mendoza Kardenalaren kalea, 8 kultura@bermeo.eus 946 17 91 57



GAZTEENTZAKO JARDUERAK

12-18 urte bitarteko gazteentzat Otsailetik aurrera tailerren ordutegia ordu erdi atzeratuko da: 18:30-20:00
Izen-emotea GIZen eta 688 819 950 (WhatsApp) www.gizbermeo.blogspot.com giz@bermeo.eus
Plaza kopuru mugatua. Tailer bakotxan, gehienez jota, 12 gaztek parte hartu ahaliko dabe.

GAZTE JARDUERAK 2025 / OTSAILA

PLAZA MUGATUAK

DOHAINIK

12.18 URTE

IZEN-EMOTEA QR kodearen bidez!

OTSAILAK 8

ARATUSTEETAKO GOZOKIAK PRESTATU

18:30 - 20:00
GAZTELEKUAN
IZENA EMOTEKO EPEA:
OTSAILAK 6



OTSAILAK 15

MAKILLAJE EKOLOGIKOA

18:30 - 20:00
GAZTELEKUAN
IZENA EMOTEKO EPEA:
OTSAILAK 13



OTSAILAK 22

ULE-APAINKETA ETA MANGA ESTETIKA

18:30 - 20:00
GAZTELEKUAN
IZENA EMOTEKO EPEA:
OTSAILAK 20



MARTXOAK 1

ARATUSTEETAKO OSAGARRIAK

18:30 - 20:00
GAZTELEKUAN
IZENA EMOTEKO EPEA:
OTSAILAK 27



688 819 950 / Tel. 946 179 158
 giz@bermeo.eus



BERMEOKO UDALA

BEHARGINTZA



Zure enplegurako zurbia

Langabezian bazaude, prestakuntza gutxi baduzu eta lan-munduan sartzea kostatzen zaizula sentitzen baduzu, EnpleGU zuretzat da. Funtsezko trebetasunak eta gaitasun profesionalak garatzen eta gizartean bete-betean parte hartzeko eta lana aurkitzeko behar duzun konfiantza ematen laguntzen dizugu.

EnpleGU zure hazkunde pertsonal eta profesionalean laguntzera bideratuta dago, oztopoak gainditzeko eta zure gizarte- eta lan-aukerak hobetzeko beharrezkoak diren tresnak eskainiz.

Programak prestakuntza tekniko eskaintzen dizu enpresek eskatutako arloetan. trebakuntza horrek enplegua lortzen edo zure ibilbide profesionalean aurrera egiteko prestakuntza ematen lagunduko dizu.

Ikasketa maila baxua eta giza eta lan beharrak daukiezan pertsonari enplegu aukerak sortzeko EnpleGU programan parte hartuko dau Bermeo, Mundaka eta Sukarrietako Behargintzak. Nautika eskolagaz lankidetzan jardungo dabe, eta homologatuta dagoan prestakuntza eskainiko dabe:

- Itsasontziko segurtasuna eta lehen sorospenak (70 ordu): Segurtasuneko Oinarritzko Prestakuntzako ikastaroaren baliokidea da
- Arrantza-ontziko estalki-lanak (30 ordu): Marinel arrantzale-ikastaroaren baliokidea da
- Arrantza-aparailuak muntatzea (190h)

Informazioa: 94 617 91 90/behargintza@bermeo.eus

3R Programa, Tokiko Enplegua 2024

Lan bila zabilz? Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz, Bermeoaldeko Behargintzak eskaintzen dauan 3R Programa lagungarri izango dozu!

Programak hiru ardatz daukaz zure enplegarritasuna hobetzeko: lan-orientazioa, lan-aktibazioa eta lan-bitartekaritza.

Ez izan dudarik eta hartu hitzordua, astelehenetik barikura bitartean, 09:00etatik 14:00etara:

- 94 617 91 90

- behargintza@bermeo.eus



Busturialdeko langabeak kontratatzeagaitik diru-laguntza

Busturialdeko Udalek, Gernika-Lumoko Lanbide Ekimenak eta Bermeo, Mundaka eta Sukarrietako Behargintza Garapen Agentziak enpresei bideratutako dirulaguntza lerro bat sortu dabe kontratazioak egiteko. Helburua enplegua sustatzea da eta, era berean, eskualdeko garapen ekonomikoa indartzea. Dirulaguntzak Busturialdeko udalek sustatu dabez, eta Lanbideak lagundu dauz diruz.

- Eskualdeko enpresei bideratutako aurtengo aurrekontu osoa: 238.352 €
- Eskabideak egiteko azken eguna: 2025eko otsailaren 28a
- Informazio gehiago: Bermeoaldeko Behargintza (Zubiar tar Kepa 26-28, 1; tel. 94-617 91 90) eta Gernika-Lumoko Lanbide Ekimenak (Alhondiga, 6; tel. 94-625 57 58)
- Oinarriak, eskabidea eta berori justifikatzeko eranskinak: Bermeoko Udalaren webgunean (www.bermeo.eus)

KZ GUNEA

AURREZ- AURREKO IKASTAROAK

Otsailaren 13tik 14ra: 11:00etatik 13:00etara. Android-en mantentze-lanak. Luzatu zure gailuaren bizitza (gaztelaniaz). 4 ordu.

IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Otsailaren 11n: 11:00-13:00

Otsailaren 13an: 14:00-16:00/16:00-18:00

Zubiaur tar Kepa 26-28 - 1. solairuan (udal azokan) · Tel.: 944033325

www.kzgunea.eus · tutor.bermeo@kzgunea.net



DEMIKU JUBILATUEN ELKARTEA BINGOA

Astelehenetan eta eguenetan

19:00etan

Demiku Nagusien Txokoan

ANTZERKI TAILERRA

Otsailaren 5, 12, 19 eta 26an.

19:30ean

Gizarte eta Kultura Etxean



ZINEA

**NESTOR
BASTERRETxea
ARETOAN**

Astero filmen informazioa udalaren webgunean, Bermeo Zabaltzen APPan eta sare sozialetan zabalduko da. Sarrerak: salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

Sarreraren prezioa:

Zapatu eta domeketan: 6 €

Asteleheneretan, ikuslearen egunean: 4,50 €

Umeen filmak: 4,50 €

Ordutegia:

NAGUSIEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 19:30ean

Asteleheneran (ikuslearen eguna):

19:00etan eta 21:30ean

UMEENTZAKO FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 17:00etan

*Oharra: ordutegiak aldatu ahal izango dira, filmak luzeak diranean.

NAGUSIENTZAKO FILMAK

- Sing sing
- El profesor de esgrima
- La acompañante
- Mikaela

UMEENTZAKO FILMAK

- Flow, un mundo que salvar
- Zorro y liebre salvan el bosque
- Bambi, una vida en el bosque
- Los exploradores



Martxoan...

- Aratustekak
- Emakumeen Nazioarteko Eguna
- Antzerkia. "Postdutarik gabeko gutunak", Xake produkzioak

Jarri hemen zure publizitatea

Prezioa: 250 €

94 617 91 57

kultura@bermeo.eus

www.bermeo.eus

